

ZIZURKIL / Parekatu egin dira liburuen eta DVDen mailegu kopuruak

Arantxa Zabalak (Zizurkil, 1963) Atxulondo kultur etxean egiten du bere lana.

Zer osasun du liburutegiak?

Hain herri txikia izateko nahiko osasun ona dugu mailegutza aldetik, baina gehiegi mailegatzen dira DVDak.

Beraz, liburuak edo DVDak mailegatzen dira gehiago?

Estadistiketan ikusten da parekatu egin dela.

Zein da maileguan gehien ematen duena?

Argi eta garbi, emakumeak.

Eta adinari begiratzuz gero?

Helduak esango nuke. Bestalde, somatzen dut helduek haurrentzako DVD gehiago hartzen dituztela eta beraz ipuin gutxiago.

Zein liburu duzu gustukuen?

Hainbat fase pasatu ditut: txikitan, abenturazkoak; nerabetan, egunkariak; bolada izan nuen polizia-nobelekin, gero fase intelektuala izan nuen, Simone de Beauvoirek idatzitakoak adibidez, eta egun, adinarekin, denetarik irakurtzen dut. Esaterako, Henning Mankellen liburuak asko gustatzen zaizkit.

Eta gehien eragin dizuna?

El amor en los tiempos del colera, Gabriel Garcia Marquezena eta El pais bajo mi piel Gioconda Bellirena.